

maiatzaren 9a
Europaren eguna



9 de mayo
Día de Europa

EUSKOTAR EUROPAZALEAK, KRISIAREN AURREAN: «EUROPA BERRI BAT BEHAR DUGU, ETA ORAINTXE».

Azken bi hamarkada honetan mundu osoko politika, ekonomia, finantza eta merkataritza oinarriek izan duten eraldaketa berebizikoa izan da. Eraldaketa horren ondorioz, elkarren mendekotasunen, desoreken, asimetrien eta botere lausotzearen prozesu bat gertatu da, *globalizazioa* deritzoguna.

Europar Batasuna, jakina denez, politika bateratzearen eta ekonomia lankidetzaren proiektu berritzailea da. Sei hamarkadaz baino gehiagoz, gai izan da adiskidetzea, egonkortasun demokratikoa, ekonomia aurrerakuntza, funtsezko eskubideak eta ongizate Estatuaren indartzea sustatzeko. Orain, baina, zailtasun handiak ditu, XXI. mendean Europak duen lehenengo krisi handiari behar bezala aurre egiteko.

Hasierako nahasmenduaren eta paralisiaren ondoren, krisiari emandako erantzunek albo batera utzi dituzte Europar Erkidegoko erakundeak, barne zatiketak ekarri dituzte, europazaletasuna ahuldu dute, eta agerian jarri dituzte europar asmo bateratuen eta Estatu bakoitzaren interesen arteko kontraesanak.

Gure kezka, dena dela, harago doa. Azkenaldian European izan den hauteskunde bakoitzean, nabari da Europa ahuldu egin dela, bai, baina gainera gaixotasun larri batek jo duela. Gaixotasun horren sintoma dira populismoa, muturreko eskuinaren hazkundera, eta muturrekoak edo baztertzailerak diren diskurtso politikoen normaltzea.

Duela 60 urte baino gehiago gara: 27 Estatu, 500 milioi gizabanako baino gehiago, eta 250 eskualde. Hala ere, ez gara hobeak. Gure akatsa izan da pentsatzea Europa existitzen dela, Europa berez autonomia duen erakunde bat dela, ekintzarako gaitasuna duena. Eta erratu egin gara.

Europar Batasuna gure lankidetzaren eta elkarlan nahiaren isla da. Etorkizun hobe baten alde elkarrekin lan egiteko eginbide hori gabe, Europa uzkuritu egiten da, lausotu, eta harekin batera lausotzen dira gure funtsezko eskubideak, eskubide politikoak, gizarte eskubideak eta hizkuntza eskubideak, globalizazio nahaspilatsuan.

Gure europar eginbidea berrituz, euskotar europazaleok gure ahotsa altxatu nahi dugu gaur, adierazteko Europa ez dela arazoa, Europa dela konponbidea. Orain ditugun zailtasunak, hain zuzen, epe laburreko ikuspegiek Europar Batasuna bahitu izanetik datoz. Ikuspegi motz horiek eragozten dute krisi hau gainditzea ahalbidetuko ligukeen erabakitazuekiko europar ekintza politiko bat.

Ez dezagun nahasi Europa, proiektu utopiko handia, Europar Batasunarekin. Europar Batasuna aurrerapauso handia izan da, gure egoismo nazionalak eta epe laburreko interesak gaindituz ongizatea sustatzeko aukera eman diguna.

Ez dezagun Europa identifika herritarren ordeaz erdigunean merkatuak eta finantza eragileak ipintzen dituen ideologia batekin (nahiz eta ideologia hori nagusi izan), mundu ikuskera batekin, ekonomia antolatze modu batekin, oraingo krisiari aurre egiteko era batekin. Europa askoz gehiago da, gero eta gutxiago dela dirudien Europar Batasun baten aurrean.

Horregatik, Europa berri bat behar dugu, eta oraintxe.

Metamorfosi sakon eta beharrezko batetik sortutako Europa bat, herritarrak eta haien eskubideen defentsa bateratze proiektuaren erdigunean ezarriko dituen, 1948an Europa batua sortzea bultzatu zuten balioak berreskuraturik.

Horregatik, gaur, maiatzak 9, Europaren Eguna, EUROBASKen bildutako euskotar europazaleok gogotsu gonbidatzen ditugu eusko gizartea, gizarte eragileak, hedabideak eta, oso bereziki, euskotar gazteak, Europa berri hori eraikitzen aktiboki parte har dezaten:

- Europar Erkidegoaren metodoa eta erakundeak indartuko dituen Europa federal bateranzko bultzada politiko berri bat emanez. Erabakiak hartzeko prozesua bizkortu behar litzateke, eta prozesu horri eraginkortasun handiagoa eta izaera demokratikoagoa eman.
- Globalizazioa kudeatzean Europar Batasuna bestelako aukera bat izan dadin bultzatuz. Europar Batasunak buru izan behar luke, epe laburreko maximizazioa eta espekulazioa galgatu duten nazioarteko arauen bitartez finantza sistema eta merkaturak arautzeko gai izango diren erakunde multilateralak garatzen. Erakunde multilateral horiek gardentasuna bultzatu beharko lukete, bai eta errenten banaketa bidezko bat sustatuko duten finantza eta zerga eredu orekatu bat ere.
- Europako Banku Zentralaren eta Europako Batzordearen bitartez finantza sistema bere ohiko zereginera (gizarte ongizatea sortzen duten faktoreetako bat den aldetik, ekoizpen ekonomiaren eraginkortasunari laguntzea) berriz bideratuko duen Europako ekonomia gobernu bat galdatuz.
- Europar ekonomia politika berri bat aldarrikatuz. Politika horrek —helburu makroekonomikoak, zorra murrizte eta lehiakortasuna handitzea baztertu gabe— abian jarri beharko du iraultza berde berri bat, ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatuz; horri esker, ekonomia hazkundera eta enplegu sorkuntza bizkortuko dira, eta ekonomia nahiz gizarte kohesioko tresna berriak ezarriko dira, beharrezko baitira gizarte desberdintasun gero eta handiagoak gainditzeko.
- Iraultza berde horrekin batera, energia alternatiboak eta berriztagarriak garatuko dituen energia arloko europar politika bateratua gara dadila eskatuz. Energia alternatibo eta berriztagarri horiei esker, hornitzaileak eta hornidura bideak dibertsifikatu ahalko dira. Europa energiaren arloan buruaski bihurtzeko bidean aurrera egitea funtsezkoa da, egungo liskar geopolitikoetan Europaren independentzia indartzeko, kanpo politika bateratua garatzeko, eta Europar Batasunak herrialde ekoizleetako demokraziarekin eta garapen kohesionatu eta sostengagarriarekin duen eginbidea handitzeko.
- Mediterraneoarekin eta mugakide diren beste eskualdeekin elkarriketa politikoa sustatuz. Horrela lankidetzara garatu ahalko da energia, migrazio, hezkuntza, ingurumen eta segurtasun gaietan. Hartara, ekonomia garapena eta demokratizatze prozesuak aldeztuko dira.
- Gutxiengoak eta immigrazioa kriminalizatzen dituzten diskurtsoen aurrean, benetako europar herritartasuna galdatuz. Guztioi eskubide eta betebeharrak berdinak emango dizkigun herritartasuna, elkartasuneko, berdintasuneko eta gizarte justiziako paradigma berriak definiturik, gero eta anitzagoa, konplexuagoa eta kosmopolitagoa den europar gizarte batean.
- Hezkuntza arloan ahalegin eta baliabide handiagoak aldarrikatuz, funtsezko elementua baita aukera berdintasunerako, laneko mugikortasunerako, teknologia berrikuntzarako eta ekonomiaren nahiz gizartearen aurrerabiderako.

Ez da erraza izango Europa berri hori eraikitzea. Ahalegin, sakrifizio, gogo eta eginbide itzelak behar dira. Bigarren Mundu Gerraren ondoren adiskidetzea ahalbidetu zuten eta sei hamarkadako bakea, ekonomia aurrerabidea eta gizarte ongizatea bultzatu dituen elkartasun eskuzabala eta senidetasun jasoa behar dira.

Horregatik, erne ibili behar dugu guztiok beldurraren eta adoregabetasunaren diskurtsoen aurrean, porrotera, egoismora, elkartasunik ezera eta jarrera xenofoboetara baitaramate, eta ez beste inora.

Europa berri bat, indartsua eta batua: horixe da krisitik irteteko bide erreal bakarra

www.eurobask.org/europarmanifestua2012
